Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN Y DEPORTE

# ANIZTASUN FUNTZIONALAREN PRESENTZIA HAUR LITERATURAN

GRADU AMAIERAKO LANA

**Egilea:** Estevez Chasco, Marta

**Espezialitatea:** Lehen Hezkuntza

**Tutorea:** Etxaniz Erle, Xabier

**2022**

**LABURPENA**

Haur literatura hainbat gai konplexu edo tabu lantzeko tresna gisa erabili da gure gizartean, baina, zer presentzia edo erabilgarritasun du aniztasun funtzionalak esparru horretan? Gradu amaierako lan honen bidez, aniztasun funtzionalak haur-literaturan duen presentzia ikertuko dugu hiru ikerketa-prozesuren bidez: irakasleek/gurasoek/tutoreek liburu horiei ematen dieten erabilgarritasuna, gazteek gehien irakurtzen dituzten liburuen artean gai nagusi hau duten liburuen presentzia eta aniztasun funtzionala lantzen duten 18 haur-libururen azterketa.

*Haur literatura, aniztasun funtzionala, haur liburuen ikerketa*

**RESUMEN**

La literatura infantil ha sido utilizada como instrumento para trabajar diferentes temas complicados o tabúes en nuestra sociedad, pero, ¿Qué presencia o utilidad tiene la diversidad funcional en este ámbito?. A través de este trabajo de fin de grado investigaremos la presencia de la diversidad funcional en la literatura infantil mediante tres procesos de investigación: la utilidad de dichos libros por parte de los profesores/padres/madres/tutores, la presencia de libros con este tema principal entre los libros más leídos por la juventud y el análisis de 18 libros infantiles que tratan la diversidad funcional.

*Literatura infantil, diversidad funcional, análisis de libros infantiles*

**ABSTRACT**

Children's literature has been used as an instrument to work on different complicated or taboo topics in our society, but what is the presence or usefulness of functional diversity in this field? Through this final degree project, we will investigate the presence of functional diversity in children's literature by means of three research processes: the usefulness of these books by teachers/parents/guardians, the presence of books with this main theme among the most read books by young people and the analysis of 18 children's books that deal with functional diversity.

*Children`s literature, functional diversity, analysis of children`s books*

**AURKIBIDEA**


**JUSTIFIKAZIOA** 3

**MARKO TEORIKOA** 4

- **2.1. Haur literatura.** 4
- **2.2 Aniztasun funtzionala** 11
- **2.3 Aniztasun funtzionala haur literaturan.** 14

**HELBURUAK** 15

**HIPOTESIAK** 16

**METODOA** 17

**EMAITZAK** 22

- **6.1 Galdetegia** 22
- **6.2 Ikerketa kuantitatiboa** 27
- **6.3 Liburuen azterketa** 29

**ONDORIOAK** 32

- **7.1 Galdetegia** 32
- **7.2 Ikerketa kuantitatiboa** 33
- **7.3 Liburuen azterketa** 34

**ZAILTASUNAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK** 36

**ERREFERENTZIAK** 38

**ERANSKINAK** 40

## 1. JUSTIFIKAZIOA

Gradu amaierako lan hau burutzearen zergatia ezjakintasun eta interes pertsonal batetik abiatuta izan da. Agerikoa denez, gizartean askotariko pertsonak bizi gara batera, elkarlanean eta etengabeko sozializazio prozesuan, hori baita errealitatea. Hau horrela izanik, eta hezkuntza gizartearen isla izan behar denaren baitan, errealitate hau eteten duen egoera batez ohartu nintzen aspaldi.

Nire ikasle garaian, behar bereziak zituzten ikasleak gelatik ateratzen zituzten etengabe, ikasle hauen zein beste ikasleen sozializazio prozesua oztopatuz eta errealitatearekiko esanguratsutasuna gutxituz. Urteak aurrera joan ahala, egoera hau luzatuz joan egin da gaur egunera arte, non Lehen Hezkuntzako gradu batean ere ez dago aniztasun funtzionalaren inguruko presentzia nahikorik.

Honen ondorioz, konturatu nintzen hezkuntzak ez diola gizarteak eskaintzen duen aniztasunari erantzun sakonik ematen, aniztasunak aniztasuna eskatzen baitu bai baliabide zein material aldetik.

Ateratako ondorio honen inguruan hausnartzen eta ikertzen ibili ondoren, konturatu nintzen nire bizitza pertsonalean eta esperientzian ere eragina zuela. Izan ere, nire osaba gor-mutu jaio zen duela 51 urte herri txiki batean, non nire aitona-amonek ez zuten aukera aniztasunik izan beharrezko hezkuntza eskaintzeko. Horrekin batera, nire osabaren ingurukoek ere ez zeukaten inolako ezagutzarik honen inguruan, ezta baliabide nahikorik ere, eta hortaz egoerara moldatu behar izan ginen ahal izan genuen moduan.

Urteetan zehar gizartean aldaketa nabariak eman diren eta askotariko baliabide motak dauden arren, gaur egun ere ez dut uste aniztasun funtzionala forma natural eta egoki batean integratua dagoenik gure gizartean.

Arazo-egoera honi erantzun egoki bat emate aldera eta lehen aipatu dudan gizarte-hezkuntza isla bermatze aldera, aproposa iruditu zait txikienetatik lanketa honekin hastea haur literatura tresna moduan erabilita. Hortaz, laburbilduz, gradu amaierako lan hau burutzearen motibazio nagusia ondorengoa da: aniztasun funtzionala modu egoki batean lantzen duen haur literaturaren ezaugarriak eta adibideak ezagutzera ematea.

## 2. MARKO TEORIKOA

Atal honetan haur literaturaren zein behar berezien kontzeptuak landuko dira, bakoitzaren ezaugarriak eta osagaiak aztertuz eta bi termino hauek uztartuz. Modu honetan, lanaren oinarri diren terminoak sakonki ezagutuko ditugu eta abiapuntutzat hartuko ditugu.

### 2.1. Haur literatura.

#### 2.1.1 Haur literaturaren kontzeptua

Haur literaturaren sorrera bi modutara eman daiteke:

Alde batetik, irabazitako haur literatura, zeinetan jatorriz umeentzakoak ez ziren baina umeen interesetara eta gustuetara egokitu diren testuak sartzen diren; hala nola, Txanogorritxu edo Errauskine.

Beste aldetik, literatura zuzendua dago, zeinetan helburu literarioaz gain eduki didaktikoak zabaltzearena ere dagoen.

Hala ere, haur literatura terminoa definitzerako orduan ez dago definizio zuzen bakarra, hona hemen aditu batzuen hitzak:

“La literatura infantil es aquella que tiene como destinatario al niño” (Bortolussi, 1985:16).

“Literatura infantil es una comunicación histórica, es decir, localizada en el tiempo y el espacio, entre un locutor o escritor adulto, el emisor, y un destinatario niño, el receptor, que por definición, no dispone más que parcialmente de la experiencia de la realidad y de las estructuras lingüísticas, intelectuales, afectivas, etc. que caracterizan la edad adulta” (Soriano 1995:13).

“El concepto de literatura infantil ha de tener un papel integrador y selectivo (...) En la literatura infantil se integran todas las manifestaciones y actividades que tienen como base la palabra con finalidad artística o lúdica que interesen al niño” (Cervera, 1989:157).

“Mientras que los buenos libros para mayores no son siempre para niños, los buenos libros infantiles sí son aquellos que también son capaces de interesar, incluso de conmover, a los adultos” (Borda y Tejerina, 1994:4).

"Aquella rama de la literatura de imaginación que mejor se adapta a la capacidad de comprensión de la infancia y al mundo que de verdad les interesa” (Rubió, 1999:29).

Beste modu batera esanda, haur literatura hitza erabiliz haurrentzat bideratuta dagoen artea da. Baina horrez gain, McDowellen (1973) esanetan, haur literaturatzat hartzeko zenbait baldintza bete behar dira:

a. Testu laburra izatea, umearen arreta gaitasuna txikia delako, luzea bada aspertuko da.
b. Protagonista umea ala gaztea izatea, umea identifikatuta sentitzeko.
c. Ekintza eta elkarrizketa nagusitzea, umearen arreta ere erakartzeko eta ekintzen bitartez protagonisten deskribapena egiteko.
d. Moralizatzailea izatea, ikaskizun bat eskaintzea eta didaktikoa izatea.
e. Egitura klasikoa izatea, aurkezpena, garapena eta amaiera.
f. Baikorra izatea, hau da, amaiera zoriontsua eskaintzea.
g. Hizkuntza egokia erabiltzea, ulertzeko modukoa baina erraztasun handiegirik gabe eta zailtasun puntu batekin; hau da, mailara egokituta.
h. Magiaz, fantasiaz eta abenturaz beteak egotea, baita egunerokotasunarekin lotuta ere, irakurlea identifikatuta sentitzeko.

### 2.1.2 Haur Literaturaren funtzioak

Botelhok (2010) 6 funtzio ezberdintzen ditu haur literaturan:




Alde batetik, **funtzio terapeutikoa** dugu, zeinetan haur liburuak eta irakurketa erabiltzen den gaixotasun fisiko, psikologiko eta mentalak dituzten eta ospitale, klinika zein etxean dauden haurrak tratatzeko.

Gainera, adituek ikerketa anitzetan islatu duten moduan, haur gaixoei aplikatutako biblioterapiak tentsioak, estutasunak eta beldurrak arintzen ditu, baita irudimena garatu ere, introspekzioa, katarsia eta hazkunde emozional eta psikologikoan lagunduz (Bueno eta Caldin, 2002).

Haurrentzako literaturaren funtzio terapeutikoaren adibide bat Carrasco Lluchena (2008) da; biblioterapia erabili baitzuen haurrei tratamendu onkologikoan laguntzeko.

Haur-literaturaren **funtzio didaktikoa**ri afekzio moral eta pedagogikoak gehitzen zaizkio. Sanchez Corralek dioenez (1995:97), inork ezin du ukatu betidanik haurrentzako liburuak definitu dituen konstante bat: testuen azken egitura gobernatzen duen helburu moralizatzailea.

Beste aldetik, **jolas-funtzioa** edo **funtzio ludikoa** dago, zeinetan irakurleen gozamena nabarmentzen den, irakurri bitarteko dibertimendua eta jolasa. Izan ere, hori da umeen arreta bereganatzen duena, eta asperdura da hauek ekiditen dutena (Carrasco Rodriguez, 2005).

**Literatura-funtzioa**k ere presentzia nabaria du, zeinetan umeen ikaskuntzaren aldeko modelo narratiboen, poetikoen eta dramatikoen garrantzia azpimarratzen den (Colomer, 2008).

Horrez gain, **funtzio soziokulturala** daukagu, zeinetan Cerverak (1989:39) bi adibide zehatz jartzen dituen:

- Eskola bizitzara hurbiltzea, haur literatura bizitzan erabiltzen den kulturaren emaitza baita. Irakurketa horiek ikasgelan sartzea bi errealitateak hurbiltzeko modu bat da.
- Haur literaturan dauden elementu folklorikoen aprobetxamendua. Folklorearen integrazio hori herriaren espiritura hurbiltzeko bermea da.

Azkenik, **funtzio filosofikoa** edo **funtzio axiologikoa** dugu, balioen eta kontrabalioen kontzeptuekin lotuta duena. Axiologia, laburki azalduta, naturaz, teoriaz, esentziaz eta balioen iritziez arduratzen den diziplina da.

### 2.1.3 Albuma haur literaturan

Albuma adin guztietako irakurleei zuzendutako genero literarioa da, bertan irudia eta hitza uztartzen dira literatura lan bat eraikitzeko asmotan. Hitza-irudia binomioak albuma bi adierazpen-biderekin lotzen du, literarioa eta grafikoa, hain zuzen. Baina biak uztartzeak adierazpen literario eta grafikotik bereizten du albuma, eta genero berri bat eraikitzen du.

Albuma oso aproposa da Lehen Hezkuntzako 1. zikloan hizkuntza edo kode bi (hitza eta irudia) dituelako: hitza eta irudia batera uztartzen dira. Irakurtzea ulertzea da eta haurrak Lehen Hezkuntzan hasten dira hitzak ulertzen. Gainera, umeak esanahia ulertuko du hitza eta irudiaren laguntzari esker, albumetan irudiak funtzio narratiboa betetzen du eta.

1. zikloan, arreta mantentzeko gaitasuna txikia denez, hitzen garapenak laburra izan behar du; hasi eta bukatu behar du denbora motzean. Eta horrez gain, hitzaren eta irudiaren arteko harremana estua izan behar da; esanahia osatzeko eta ulertzen laguntzeko.

Hau horrela izanik, albumek eskaintzen dizkiguten kontakizunek egitura kognitibo eta afektiboak modelatzeko aukera ematen digute, inguruan dugun mundua ulertzeko; hau da, esperientzia berrietara hurbiltzeko beharrezko tresnak eskaintzen dizkigute (Tabernero, 2005).

Ondorengoak dira albumaren osagai nabarmenenak, funtzio narratiboa bete dezaketena batzuetan, ez guztietan:

**Azala edo formatua**ren aldetik, paratestuak, kontrazala, guarda, kontraguarda, euskarriaren itxura, enkoadernatzea, kolorea edota grafia (letra mota, tamaina, kokapena) kontuan hartu behar ditugu, hauek funtzio narratiboa bete dezakete eta. Adibidez, letraren tamaina bat-batean handitzen bada egileak ekintza horri garrantzi handiagoa eman nahi diola izan daiteke. Formatuaren kasuan ere, karratua, apaisatua, bertikala edo formatu berezikoa izan daiteke, (adibidez, *La media naranja* albuma) eta kontuan hartzekoa da formatu bereziak ez direla kapritxoak, baizik eta narrazioarekin lotuta dauden osagaiak.

**Erliebea eta ehundura** ez dira maiz aurkitzen, baina haur liburuetan presentzia nabaria izaten dute; hauetan, zentzumen ezberdinak sartzen dira jokoan, hala nola ukimena. **Puntua edo seinalea**ren aldetik, puntuak irakurlearen arreta deitzea bilatzen du, baita irudiaren kokapenak, koloreak edota tamainak ere. **Itxurak eta atzealdeak** (hondoa) antzeko helburua dute, atzealdekoak arreta erakarri behar duten objektuak nabarmentzen ditu eta.

**Lerroak**, berriz, higidura sentsazioa eta asmo narratiboa ematen dizkigu. **Kolore**en kasuan, adibidez, emozioak transmititzeko kolore hotzak erabiltzen dira askotan, eta sentimenduak adierazteko, aldera, kolore beroak. Horrek ere **kontraste**en **eta tonua**ren erabilera nabarmentzen dute; izan ere, ñabardurek, itzalek, distirek eta tonuek bolumena ematen diote irudiari, sakontasun eta ikus-aberastasun sentsazioak eskainiz.

Azkenik, **antolaketa eta konposizioa**ren aldetik, kontuan hartzekoa da irakurleak ezkerretik eskuinera irakurtzen duela. Eta **erritmoa**ren lana da irakurketaren bidea erakustea eta honetan zehar laguntzea, irudia narratzailearekin batera kokatuz.

### 2.1.4 Haur literaturaren amaiera posibleak

Haur literaturaren atalarekin bukatu baino lehen, ezinbestekoa da azkenengo ezaugarri honi heltzea, nire ikerketa prozesuaren parte ere izango dena: ipuinen amaiera posibleak.

Haur literaturan amaiera zoriontsua hedatuena izan arren, Teresa Colomerrek (1998) beste lau amaiera mota proposatzen ditu:

Alde batetik, **arazoa onartzearena**, amaiera zoriontsuaren ordezkapen bat izan daitekeena. Kasu honetan, arazoa ez da konpontzen, baizik eta onartu egiten da. Orokorrean, arazoa barnetik etortzen da eta konponezina izaten da; hortaz, protagonistak dolua pasatzen du istorioan zehar. Amaiera posible honek gai psikologikoekin lotura dauka, hala nola dolua edota heriotza. Iraganean, gai hauek abiapuntu gisa agertzen ziren, baina gaur egungo literaturan, gai nagusiak dira. Haurrei ikustarazi nahi zaie gatazka saihestezina bizitzaren parte dela.

Bestalde, **amaiera irekia** dugu, zeinetan idazleak ez du ipuina ixten, interpretaziorako aukera ematen du. Jolas literarioak planteatzen direnean, batzuetan, irakurlearen esku uzten dute amaiera. Amaiera mota hau egokia izaten da errealitatearen ikuspegi konplexuagoa erakusteko eta oso ohikoa da gizarte-gaiak jorratzen direnean.

Jarraitzeko, **amaiera ezkorra, negatiboa ala tristea** dago, non protagonistak ez duen arazoa konpontzen edo ez duen bere helburua lortzen. Honek frustrazioa sortzen du irakurleak sortutako itxaropenen aurrean eta irakurlearengan eragin handia izateko asmoarekin sortzen dira (amorrua, negarra, barrea...). Sozialki, gai “gogorrak” ematen dira.

**Amaiera nahasiak edo mistoak** ere presentzia hartu du, narrazioan gai bat baino gehiago landuz eta bakoitza modu desberdin batean bukatuz. Irakurlearekin konplizitatea lortu nahian amaiera bikoitza sortu daiteke: narratzaileak zehazten duena eta irakurlearen esku geratzen dena. Adibidez, bi protagonista nagusi, bat galtzaile eta bestea irabazle amaieran. Batentzat amaiera zoriontsua izan da eta bestearentzat, berriz, negatiboa. Azpimarratzekoa da antagonista galtzaile izatea normala dela, beraz, ez da amaiera nahasitzat hartzen.

Azkenik, hasieran aipatutako **amaiera zoriontsua** izango genuke, zeinetan arazoa konpontzen den edota zehaztutako helburua lortzen den; esan bezala, hau da amaiera mota hedatuena.

## 2.2 Aniztasun funtzionala

### 2.2.1 Historian zehar zein gaur egun emandako definizioak

Aniztasun funtzionala definitzeko kontzeptua aldatuz joan da urteetan zehar, hurrengo terminoak erabilita: ezgaitasuna, desgaitasuna, urritasuna edota elbarritasuna.

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) (1980) hitzetan, aipatutako terminoek honako hau islatzen dute:

Urritasuna, funtzio psikologiko, fisiologiko edota anatomiko baten galera edo anormaltasuna deritzo.

Desgaitasuna jarduera bat ohikoa den moduan edo modu normalean gauzatzeko gaitasunaren murrizketa edo gabezia da.

Elbarritasuna, berriz, desgaitasun edo urritasun baten eraginez pertsona batek duen egoera kaltegarria da, beti ere adinaren, sexuaren eta eragile sozial zein kulturalen araberakoa.

Aipatutako hiru definizio hauek bateratu eta ordezkatu aldera, OMEak 2001ean desgaitasuna zehazten du definizio orokortzat, ondorengo esanahiarekin: Pertsona baten eguneroko bizitzako alderdi fisiko zein sozialean eragina duen osasunaren alderdian kokatutako desgaitasuna, jardueren mugatzea eta parte-hartzearen murrizketa ondoriotzat duena (OME, 2001).

Agerikoa da definizio guzti hauek konnotazio negatiboa dutela, “des” aurrizkiak falta edo gabezi bati erreferentzia egiten dio eta: desgaitasuna, hau da, gaitasunik gabekoak; elbarria edo minusbaliatua, balia gutxiekin; anormalak, normalitate ezarekin; gaixoak, hau da, osasunik gabekoak; menpekoak, autonomia eza dutenak…

Historian zehar kolektibo honek jaso izan dituen termino guztiak negatiboak izan dira, baina Espainian, 2005ean, behar berezi hauek dituzten pertsonek osatutako *Foro de vida independiente* elkarteak talde honi erreferentzia egiteko termino apropos bat proposatu zuen: aniztasun funtzionala duten pertsonak.

### 2.2.2 Aniztasun funtzionalaren integrazioa

Nahiz eta historian zehar aurrerapausuak eman diren terminologia eta integrazioaren aldetik, bide luzea dago aniztasun funtzionala duten pertsonen guztizko integrazioa eman arte.

Izan ere, gure gizartean oso presente dago *Burbuja de Hielo* deituriko egoera (Vidal, 2015:34):

> La burbuja de hielo; son los obstáculos visibles e invisibles que tienen alrededor las personas con capacidades diferentes, que les hace imposible la plena integración en la sociedad. Las desventajas que sufren estas personas, que se encuentran dentro de la burbuja de hielo son debidas a los impedimentos, dificultades y falta de medidas efectivas, que conlleven a la igualdad, suponiendo está una burbuja infranqueable, ya que es aquí donde se encuentra, la desigualdad, la discriminación, por lo tanto conllevan a la pobreza y a la exclusión.

Ondorengo marrazkiarekin modu bisual batean ulertu daiteke dibertsitate funtzionala duten pertsonek burbuila barruan dituzten zailtasun zein oztopoak, beste pertsonekiko berdintasun eza inposatzen duen barrera zurrunak sortua (Vidal, 2015:35):


Calidad de vida
Accesibilidad
Trabajo
Vivienda
Ocio
Educación
P
C
D
Transporte
Autonomía
Visibilidad
AVD
Dignidad
Libertad
Derechos

## 2.3 Aniztasun funtzionala haur literaturan.

Haur literaturaren azkenengo urteetan gai berriak edo berritzaileak presentzia handia hartzen joan dira. Gai hauek guk sortutako *tabu*ak dira, beste kultura batzuetan egon ez daitezkeenak, eta orokorrean aurre egiten ez dakigun gai baten aurrean sortzen ditugu, hala nola heriotza edota gaixotasunak (Colomer, 1998).

Honen lanketa errealismo kritikoa deritzo, zeinek deserosoak edo tabu diren gai hauei ahotsa ematen dien, berriak ez diren gaiak dira, eta urteetan zehar ezkutatuak izan ditugunak.

### 2.3.1 Aniztasun funtzionalaren lanketaren garrantzia haur literaturan

Aniztasun funtzionala errealismo kritikoan lantzen den “gai berritzaile” horietako bat izango litzateke, eta haur literaturaren erabilera oso aproposa da dibertsitate funtzionalaren sailkapen ezberdinetara gerturatzeko. Modu honetan, dibertsitate funtzionala duten umeek errepresentatuta ikusiko dute beraien burua, erreferente bat izango dute beraien antzera bizitza bizi duena, eta beste ikaskideek ere errealitate horren ezaugarriak ezagutzeko aukera izango dute (Comes 1991; Orjasaeter, 1987).

Gainera, aniztasun funtzionala bezalako *tabu*tzat hartzen diren gaiek, jarrera berriak sortzen dituzte. Izan ere, hauek dira egungo gizartearen problematikari erantzuna ematen diotenak eta balio generikoen defentsa planteatzen dutenak, hala nola errespetua, tolerantzia eta askatasuna. Horrez gain, gizabanakoek bere ingurune naturalean duten bizitza atsegin eta harmonikoaren alde egiten dute, botere autoritarioa eta industria-gizarte modernoari lotutako alienazio-modu guztiak salatzen dituztenak (Colomer, 1998).

Literatura-narrazioaren ikuspegitik, ipuinetan islatzen den aniztasunari tratamendu sakona ematen zaio. Izan ere, kontuan hartzekoa da iraganean aniztasun funtzionalaren bat zuten pertsonei uko egitetik hauek modu inklusiboan integratzera arte eman den eboluzioa (Gato eta Carballo, 2009).

Hortaz, haur literatura oso tresna egokia eta esanguratsua da dibertsitate funtzionalaren presentzia bermatzeko eta honekiko jarrera positiboak gauzatze aldera (Gross eta Ortiz, 1994).

## 3. HELBURUAK

Lan hau ondorengo helburuak lortzeko xedearekin burututa dago:

Alde batetik, aniztasun funtzionalaren presentzia haur literaturan behatzea, ikerketa ezberdinak eginez gizarteak gaia honen inguruan duen interesa aztertzeko. Horrela, benetan gizartean gaia honen inguruko lanketarik egiten duen edo interesik duen ondorioztatuko dugu, gaia honek behar beste garrantzi hartzen duen edo ez zehaztuz.

Beste aldetik, gizartea txikitatik errealitatean heztea haur literatura tresnatzat erabiliz aniztasun funtzionalaren egoera ezagutzeko.

Izan ere, aniztasun funtzionala gizartean presente dagoen errealitate bat da eta ikasleak txikitatik errealitatean hezi behar ditugu guztien arteko sozializazio prozesua aberatsena izan dadin. Gainera, haur literatura oso tresna inklusiboa eta egokia da, aukera ematen duena gai hau modu aktibo eta bisual batean lantzeko eta umeek erreferente ezberdinak izateko.

Azkenik, aniztasun funtzionalaren inguruko liburuak ezagutzera ematea ikerketa prozesu baten bidez, etorkizunean eskuragarri izateko.

Modu honetan, bai umeek, bai gurasoek eta bai irakasleok ere gai honen inguruko liburuak eskuragarri izango ditugu. Horrez gain, ikerketaren ondorioz, liburu hauek gaia modu egokian lantzen dutelaren ziurtasuna egongo da.

## 4. HIPOTESIAK

Atal honetan, ikerketa honetarako planteatzen ditudan hipotesiak helaraziko ditut; hau da, ikerketa prozesuan zehar aurkitzea espero dudana. Lanaren bukaeran, behin ikerketa prozesua gauzatuta, lortutako emaitzek islatuko dute ondorengo hipotesiak zuzenak edo okerrak diren:

1. Haur literaturako oso liburu gutxitan tratatzen da aniztasun funtzionala.

2. Tratatzen denean zeharka izaten da gehienetan, ez da gai nagusitzat hartzen.

3. Batez ere aniztasun funtzional psikikoak agerikoak dira, fisikoek ez dute hainbesteko presentziarik.

4. Amaiera positiboa edo arazoa konpontzearena nabarmentzen da.

5. Guraso eta irakasle gehienek ez dituzte gai honen inguruko liburuak ezagutzen ezta erabiltzen ere.

## 5. METODOA

Ikerketa prozesu hau literaturaren didaktikaren alorrean garatzen da, non nire interes nagusia haur literaturak aniztasun funtzionalaren gaia jasotzen duen zehaztea den, baita liburu hauek aztertzea ere. Azterketa osoa egiteko, ikerketa misto bat erabiltzea erabaki dut, tresna kuantitatiboak zein kualitatiboak baliatuz. Hortaz, aurreko atalean zehaztu diren helburuak lortze aldera, gradu amaierako lan honen erdigune izango diren ondorengo ikerketa anitzak gauzatu ditut:

Hasteko, nire lana aberasteko asmoz, CEIP Lakuabizkarrako eta Niño Jesus Ikastetxeko irakasleei galdetegi bat pasatu diet, baita zoriz Odon de Apraizeko patioan aurkitu ditudan guraso batzuei ere (I. eranskina). Honen bitartez, guraso zein irakasleek liburu hauek ezagutzen edo erabiltzen dituzten ondorioztatuko dut, hauen erabilera errealaren datu zehatzagoak lortuz.

Bestalde, Gasteizeko gizarte etxetako liburutegi publikoetan eskaintza handiena izan dituzten liburuak aztertuko ditut, datu zehatzetan adierazteko hauetako zer portzentaiak aniztasun funtzionalaren gaia lantzen duen.

Horretarako, Iñaki Roldanek 2021eko ekainean argitaratu zuen berrian oinarrituko naiz, hau instrumentutzat erabiliz, zeinetan Gasteizeko liburutegi publiko bakoitzeko gehien eskatutako 5 liburuen izenburuak batu zituen (II. eranskina). Beraz, ikerketaren lagina izango diren 65 liburu aztertuko ditut, liburu horietan aniztasun funtzionalaren presentzia zenbatekoa den ikusteko. Alde horretatik, kuantitatiboki ikusiko dugu aniztasun funtzionala lantzen dituzten liburuen presentzia gure haur literaturan. Aztertutako liburuak 6-12 adin tartekoak dira, eta, aipatu bezala, Gasteizko liburutegi publikoetan gehien erabili direnak dira.

Horrez gain, abiapuntutzat hartu dudan gaia (aniztasun funtzionala) zehazki lantzen duten 18 liburu modu sakonean aztertuko ditut. Horretarako, eranskinetan eskuragarri dagoen azterketa fitxa sortu dut ikerketa-instrumentu modura (III. eranskina).

Kasu honetan, modu kualitatiboan, alderdi ezberdinei garrantzia emanez, ipuin zehatz hauen egokitasuna eta egitura aztertuko dut, etorkizunera begira ezagutzera emateko eskuragarri egon daitezen. Hona hemen aztertutako 18 liburuen zerrenda:

| ARGAZKIA | IZENBURUA | IDAZLEA | ERREFERENTZIA |
|---|---|---|---|
|   | *El vicario que hablaba al revés* | Roald Dahl | Dahl, R. - Blake, Q. (1992). *El vicario que hablaba al revés*. Ediciones SM. |
|   | *Honelakoxea da nire arreba, eta zer?* | Pako Sagarzazu | Sagarzazu, P. - Valverde, M. (2001). *Honelakoxea da nire arreba.* Donostia: Elkarlanean S.L. |
|   | *Nire arreba Aixa* | Meri Torras | Torras, M. - Valverde, M. (2001). *Nire arreba Aixa.* Donostia: Elkarlanean S.L. |
|   | *Inés crece despacio* | Claude Helft | Helft, C. - Brunelet, M. (2003). *Inés crece despacio.* Barcelona: Ediciones Serres, S.L. |

| | | | |
|---|---|---|---|
|   | *Cuidando a Louis* | Lesley Ely | Ely, L. - Dunbar, P. (2004). *Cuidando a Louis.* Barcelona: Ediciones Serres, S.L. |
|   | *Amona basoan galdu zenekoa* | Arantxa Iturbe | Iturbe, A. - Odriozola, E. (2005). *Amona basoan galdu zenekoa*. Donostia: Elkarlanean S.L. |
|   | *El libro negro de los colores* | Menena Cottin | Cottin, M. - Faría, R. (2008). *El libro negro de los colores*. Libros del Zorro Rojo. |
|   | *Amonak Alzhei… zer?* | Véronique Van den Abeele | Van den Abeele, V. - K. Dubois, K. (2009). *Amonak Alzhei… zer?*. Ttarttalo S.L. |
|   | *Alex, nire laguna* | Mikel Gurutxaga | Gurrutxaga, Mikel - Gurrutxaga, Maite (2010). *Alex, nire laguna*. Pamiela etxea eta Faktoría K de libros. |

| | | | |
|---|---|---|---|
|  | *El cazo de Lorenzo* | Isabelle Carrier | Carrier, I. (2010). *El cazo de Lorenzo.* Barcelona: Editorial Juventud S.A. |
|  | *Martin* | Alaine Airre | Agirre, A. - Gurutxaga, Maite (2016). *Martin*. Elkar argitaletxea. |
|  | *Gixela nire laguna da* | Antton Kazabon | Kazabon, A. - Mutuberria, M. (2017). *Gixela nire laguna da.* Ibaizabal argitaletxea. |
|  | *Super botereen liburu aparta* | Susanna Isern | Isern, S. - Bonilla, R. (2019). *Superbotereen liburu aparta*. Editorial Flamboyant SM. |
|  | *Calle de los Cerezos* | Emma S. Varela | S. Varela, E. - López-Berges, P . (Misspink) (2020). *Calle de los Cerezos*. La Cuentería Respetuosa. |

| | | | |
|---|---|---|---|
|   | *Por cuatro esquinitas de nada* | Jerome Ruiller | Ruiller, J. (2004). *Por cuatro esquinitas de nada*. Editorial Juventud. |
|   | *Munstro arrosa* | Olga de Dios | De Dios, O. (2016). *Munstro arrosa*. denon**arte**an. |
|   | *Superniños* | Anya Damirón | Damirón, A. - Pino, P. (2015). *Superniños.* Algar. |
|   | *Biga, benetan identifikatu gabeko animalia* | Romain Pujol | Pujol, R. - Caut, V. (2020). *Biga, benetan identifikatu gabeko animalia.* Astiberri. |

## 6. EMAITZAK

Erabilitako metodoaren atalean aipatu dudan moduan, nire ikerketak hiru alderdi aztertu ditu: irakasle eta gurasoen eskutik, aniztasun funtzionala gai nagusitzat duten haur liburuen gaur egungo egoera; Gasteizeko gizarte etxetako liburutegi publikoetan gehien eskatutako liburuen artean gai hau lantzen duten liburuen presentzia; eta aniztasun funtzionalaren inguruko liburuen azterketa.

Hortaz, atal honetan lortutako emaitzak aztertuko ditut, hauetan sakonduz eta modu bisual eta argian jasotakoa islatuz.

### 6.1 Galdetegia

Esan bezala, eranskinetan eskuragarri dagoen galdetegia CEIP Lakuabizkarrako eta Niño Jesus Ikastetxeko irakasleak lagin moduan dituen galdetegi bat pasatu dut, baita zoriz Odon de Apraizeko patioan aurkitu ditudan guraso batzuei ere. Galdetegia 20 irakaslek eta 10 gurasok bete dute. Honen bitartez, guraso zein irakasleek liburu hauek ezagutzen edo erabiltzen dituzten ondorioztatuko dut, hauen erabilera errealaren datu zehatzagoak lortuz.

Galdera 1: **Liburu mota hauen erabilera beharrezkoa edo erabilgarria ikusten duzu?**



Galdera 1.1: **Zergatik?**

Galdera honen erantzunetan gehien errepikatutako hitzak “inklusioa” edo “normalizazioa” izan dira. Hortaz, esan daiteke gurasoek/irakasleek bilatzen dutela aniztasun funtzionalaren presentzia eguneroko bizitzan txertatzea eta honen presentzia bermatzea literaturaren bidez. Hona hemen jasotako erantzun batzuk:

*“Aniztasuna aztertu, ezagutzera eman eta gure gizartearen parte dela onartu Behar dugulako eta eskolan behar duen ikasleren bat egon daitekeelako.”*

*“Txikitatik landuz gero errazagoa izango delako sentsibilizazioa eta normalizazioa. Modu ludiko batean lantzeak ere lan honetan lagundu dezake.”*

*“Beharrezkoa da umeek inklusibitatea lantzeko eta jarrera inklusiboak izateko.”*

*“Porque en el conocimiento está la aceptación y el entendimiento de “lo diferente” es importante normalizarlo para evitar futuras discriminaciones.”*

Galdera 2: **Mota hauetako liburuak maiz erabiltzen dituzu zure umeekin/ikasleekin?**



Galdera 2.1: **Erantzuna baiezkoa izan bada, zein? Aipatu liburuaren izenburua.**

Aurreko galderaren erantzun positiboa oso mugatua izan denez (%14,3), hiru liburu baino ez dira jaso, errepikatuak izan direnak: *El cazo de Lorenzo*, *Por cuatro esquinitas de nada* eta *Monstruo arrosa*. Hiru liburu hauek aurrerago ere aztertu egin ditugu.

Galdera 2.2: **Aurreko erantzuna ezezkoa izan bada, zergatik ez dituzu erabiltzen? Aukera bat baino gehiago aukeratu dezakezu.**



Galdera 3: **Irakurketa hau zer irakurle motari bideratuta dagoela edo egon beharko liratekeela esango zenuke? Aukera bat baino gehiago aukeratu ditzakezu.**




Galdera 3.1: **Zergatik?**

Azkenengo galdera honetan erantzunak ere antzekoak izan dira, denon gauza dela azalduz eta adinaren inguruko ezberdintasunik egin gabe. Hona hemen jasotako erantzun batzuk:

*“Aniztasun funtzionala izan edo ez izan liburu mota hauetaz gozatzeko aukera eman behar delako.”*

*“Aniztasun funtzionala zer den guztiok jakin beharko genukeen gauza bat delako. Ta ipuinen bitartez askoz errazagoa da. Haur literatura eta holako liburuen hausnarketa eta sakontzea umeen burutxoak irekitzeko aukera ematen dute. Aniztasun ez bakarrik funtzionala baita sexuala, kulturala, hizkuntz Aniztasuna eta abar literaturaren bitartez landu beharko ziren ere.”*

*“Benetako inklusioa lortzeko gizarte osoa sentsibilizatu behar delako.”*

*“Aniztasun funtzionala edonoren bizitzan eragina izan dezake eta prest egon behar gara erantzun inklusiboa emateko, eta literaturaren bitartez modu desberdin eta hausnartzaile batean landu dezakegu.”*

*“Porque en el conocimiento está la aceptación y el entendimiento de “lo diferente te” es importante normalizarlo para evitar futuras discriminaciones.”*

**6.2 Ikerketa kuantitatiboa**

Lanean zehar aipatu dudan moduan, metodo kuantitatiboaren aldetik Gasteizeko gizarte etxetako liburutegi publikoetan haur literaturan eskaintza handiena izan dituzten liburuak aztertu ditut.

Horretarako, Iñaki Roldanek 2021eko ekainean argitaratu zuen berrian oinarrituko naiz, hau instrumentutzat erabiliz, zeinetan Gasteizeko liburutegi publiko bakoitzeko gehien eskatutako 5 liburuen izenburuak batu zituen. Beraz, ikerketaren lagina izango diren 65 liburu aztertuko ditut, liburu horietan aniztasun funtzionalaren presentzia zenbatekoa den ikusteko. Ondorengoak dira jaso ditudan datuak:

Gasteizko udalak agerian utzi duen moduan, hau da Gasteiz mailan gehien eskatutako 5 haur-liburuak:

| HAUR-LITERATURA | IDAZLEA | IZENBURUA |
|---|---|---|
| 1 | Jeff Kinney | *Diario de Greg* |
| 2 | Raina Telgemeier | *Coraje* |
| 3 | María Leach | *¿Qué bigotes me pasa?* |
| 4 | Ibon Martín | *Onin eta sorginen sekretua* |
| 5 | Roberto Santiago | *El misterio de la tormenta de arena* |

Iturria: Gasteizko udala

Gasteiz mailan gehien eskatutako 5 liburuen artean, ez dago aniztasun funtzionala lantzen duen libururen presentziarik. Gizarte etxe bakoitzean gehien eskatutako 5 liburuak lagintzat hartuz, hau da, guztira 65 liburu, ondorengo emaitza lortu da:




Lagina osatu duten 65 liburuetatik bakarrik 2 liburuk (%3.1) lantzen dute aniztasun funtzionalaren gaia: *Calle de los Cerezos* eta *Biga: benetan identifikatu gabeko animalia*. Aipatutako bi liburu hauek ikerketa kualitatiboan ere aztertu izan ditut, jarraian ikusiko den moduan.

### 6.3 Liburuen azterketa

Azkenik, nire ikerketa prozesua ixte aldera, aniztasun funtzionala gaitzat duten 18 ipuin aztertu ditut eranskinetan eskuragarri dagoen azterketa fitxa tresna moduan erabilita. Fitxa honetan fokua jarri dut aniztasun funtzionala lantzeko moduan, motan (fisikoa edo psikikoa) eta amaiera motan ere bai.

Ondorengo datuek islatu dute aniztasun funtzionalaren inguruko liburuen errealitatea:

Lagin moduan hartutako 18 liburu hauetatik 7k (%38.9) aniztasun funtzionala duen pertsona protagonistatzat dute; beste 11 (%61.1) liburuen kasuan, berriz, protagonista inguruko pertsona bat da, familiako kidea edo laguna, aniztasun funtzionala duen pertsonaren egoera kontatzen dutena.



Aniztasun funtzional motaren kasuan, berriz, fisikoak eta psikikoak ezberdindu ditut. Fisikoen artean (%38.9), ikusmena, entzumena edota hanka/besoak faltan dituzten pertsonak kontuan hartu ditut; psikikoen artean (%38.9), berriz, Down sindromea, autismoa edota alzheimerra bezalakoak ageri dira. Horrez gain, gaia modu orokorrean lantzen dutenak ere badaude (%22.2), metafora moduan aniztasun funtzionalen gaia jorratzen dutenak.



Azkenik, azterketa fitxaren azkenengo alderdia amaiera mota izan da, Teresa Colomerrek egin zuen banaketa oinarritzat hartuz, ondorengoak zehaztu ditut: arazoa onartzea (%11.1), amaiera zoriontsua (%83.3) edo amaiera ezkorra, negatiboa edo tristea (%5.6).



## 7. ONDORIOAK

Behin aztertutako hiru alderdien emaitzak jasota, atal honetan ikerketa bakoitzari dagozkion ondorioak plazaratuko ditut. Horrela, emaitza horiek dakartena eta eragiten dutena islatuko dut, lanean zehar landutakoari eutsiz eta jasotako emaitzekin bateratuz.

### 7.1 Galdetegia

Kasu honetan, baieztatu dugu zein kontraesankorra den gizartea batzuetan; izan ere, %100ak aniztasun funtzionala gai nagusitzat duten liburuen garrantzia bermatu arren, %14ak baino ez ditu liburu mota hauek erabiltzen.

Tamalez, datu hauek baieztatzen dute ikerketarekin hasi baino lehen egin nuen bosgarren hipotesia, non esan nuen guraso eta irakasle gehienek ez dituztela gai honen inguruko liburuak ezagutzen ezta erabiltzen ere.

Erabilera mugatu honen zergatia liburu mota hauek aurkitzeko zailtasuna eta gaiaren gaineko gaitasun falta dira; baieztapen hauek bat egiten dute aurretik landu dugun ikerketa kuantitatiboarekin, zeinetan islatu den erabilera gehien duten liburuen artean ze presentzia txikia duten lan honetan landutako liburuak.

Hala ere, honek ere agerian uzten du gizartean hain hedatua dagoen konformismoa, non efortsua eskatzen duten jarduerak alde batera uzten ditugun, gure burua gauza “berriak” bilatzera edota hauen inguruan informazioa lantzera behartu gabe. Izan ere, hain argi badago liburu hauen erabilgarritasuna eta onurak, zergatik gehiengoa ez da behartzen hauek ezagutzera eta erabiltzera?

Azkenik, jasotako emaitzekin ondorioztatu dezaket gizarteak argi duela liburu hauek aniztasun funtzionala duten zein ez duten umeei bideratuta egon behar direla; modu honetan, ezaugarri hauetako umeak erreferente ezberdinak izango dituzte eta integratuta sentituko dira, baina horrez gain, beste umeek ere kontzientzia hartuko dute eta errealitatea bere osotasunean ezagutuko dute.

Gainera, galdetegia bete duen gehiengoak ere argi dauka liburu mota hauek ez daudela soilik umeei bideratuta, baizik eta helduoi ere bai. Berriz ere helduko diot marko teorikoan erabilitako definizio bat, baieztapen hau indartzen duena:

"Mientras que los buenos libros para mayores no son siempre para niños, los buenos libros infantiles sí son aquellos que también son capaces de interesar, incluso de conmover, a los adultos" (Borda y Tejerina, 1994:4).

**7.2 Ikerketa kuantitatiboa**

Ikerketa prozesu honen emaitzetan agerian geratu den moduan, Gasteizen gehien irakurritako haur liburuen artean %3ak baino ez du aniztasun funtzionalarekin zer ikusirik.

Kasu honetan ere, errealitateak bat egiten du honen inguruan egin nuen lehenengo hipotesiarekin, argi nuen eta haur literaturako oso liburu gutxitan aniztasun funtzionalaren gaia tratatzen dela.

Honek ondorioztatzen du zein erreala den lanean zehar aipatutako *Burbuja de hielo* terminoak, ezaugarri hauek dituzten pertsonek bizitzan zehar gainditu beharreko ageriko zein ikusezinak diren oztopoekin lotura duena (Vidal, 2015:34).

Kasu honetan, ikusgaitasunarekin lotura zuzena dauka, non kolektibo honek haur literaturan ere ez duen behar besteko presentzia, errealitatearen ikuspegitik aldenduz eta gutxituz.

Jakinaren gainean egonda liburu hauen bitartez dibertsitate funtzionala duten umeek errepresentatuta ikusiko dutela beraien burua, erreferente bat izango dutela beraien antzera bizitza bizi duena, eta beste ikaskideek ere errealitate horren ezaugarriak ezagutzeko aukera izango dutela, aukera ezin hobea litzateke ikusgaitasunarekin lortura duen oztopoa gainditzeko (Comes 1991; Orjasaeter, 1987).

### 7.3 Liburuen azterketa

Azkenik, aniztasun funtzionala gai nagusitzat duten 18 liburuen azterketa dugu, zeinetan oso datu interesgarriak jaso ditudan, gizartearen egoera guztiz islatzen dutena.

Oso deigarria da aztertutako liburuen %38.9ak soilik protagonistatzat izatea aniztasun funtzionala duen pertsona; beste %61.1ak, berriz, inguruko pertsonak dituzte protagonistatzat, lagun edo familiako kideren bat aniztasun funtzionala duen pertsonaren egoera azalduz.

